



# **LESBIANAK: IKUSGAI ETA ESKUBIDEDUN”, POLITIKAN ERAGITEKO KANPAINA.**

## PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Gure gaur egungo jendartean, oraindik ere, urria da lesbianen ikusgaitasuna, eta emakumeak ez dira subjektu sexualtzat hartzen. Ikusezintasun hori oztopo handia da gizarte baliabideak besteren baldintza beretan baliatzeko orduan, zeren ikusgai bihurtzeko beldurrak zenbait eskubide baliatzeari uko egitea baitakar sarritan. Hori horrela, lesbiana askok garesti ordaindu behar izaten dute urte luzetako borrokaren fruitu diren hainbat gizarte eta lege baliabide ezin erabiltzea. Egoera hori abiapuntu harturik ekin genion orain aurkezten dizuegun kanpaina hau lantzeari, helburu hauek lortzeko asmoz:

- Emakume lesbianen parte hartze aktiboa sustatu beren lesbianismoarekin eta jendartean ikusgaitasun handiagoa eskuratzearekin zerikusia duten gaietan.
- Politikan eragiteko jarduerak burutu, botere-taldeak (alderdi politikoak) inplika daitezten ikusgaitasun lesbikoa esparru publikoetan areagotuko duten politikak garatzerakoan.
- Oinarrizko agiri bat landu, non lesbianen ikusgaitasun urriarekin loturiko arazoak aipatuko diren eta horiek ezabatzeko proposamenak egingo.

## PROZESUA

**TALDE POLITIKOEI AURKEZTEKO PROPOSAMENA: Lesbianen ikusgaitasuna sustatzeko eta haien berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko neurriak txertatu agenda politikoan**” izena duen oinarrizko agiri hori jorratzeko, metodologia parte hartzaile hau erabili dugu:

- Lehenik eta behin, martxoan, talde eragile bat sortu zuten ALDARTEren laguntza taldera etorri ohi diren emakume lesbianek. Zenbait eztabaida saio egin ondoren, lehen agiri bat adostu zuten, non talde eragilean sortutako proposamenak batzen ziren.
- Uztailean, Euskal Herriko LGTB talde guztiei bidali zitzaien agiria, bai eta bilera batera deitu ere. Talde horiek kanpainari ekarpenak egitea eta agiriaren edukia guztien artean adostea zuen helburu bilerak, eta LGTB taldeetako zenbait ordezkari bertaratu ziren.



- Ekarpenak guztien artean eztabaidatu ondoren, behin betiko oinarritzko agiria adostu zen (beherago aurkituko duzu), eta LGTB talde guztiei helarazi zitzaien, agiriarekiko eta kanpainarekiko atxikimendu formala ager zezaten. Hurrengo talde hauek egin dute bat kanpainarekin: EHGAM, GEHITU, GUZTIOK, HEGOAK, LIGA LGTB-UPV, MEDEAK, ORTZADAR eta SEHASKA.
- Irailean, lehen harremanak bideratu ziren kanpainaren jomuga diren alderdi politikoekin. Oinarritzko agiria bidali zitzaien honako talde hauei: PSE, EH-BILDU, PP, EZKER ANITZA, PODEMOS–AHAL DUGU eta EAJ, eta bilera baterako deia egin zitzaien, agiriarekiko eta kanpainarekiko euren konpromiso eta atxikimendu maila ezagutzeko.
- Iraila eta urrian zehar bilerak egin ziren alderdi politiko horiekin, eta agirian jasotzen den edukiari eta kanpainari buruz duten jarrera azaldu zuten bertan.
- Azkenik, dokumentu batean jaso ziren alderdi politikoen erantzunak. (Beherago aurkituko duzu).

## ONDORIOAK

Zenbait hilabetetako lan sakonaren ondoren, uste dugu kanpainak oso emaitza positiboak izan dituela, bai talde eragileko emakumeen zein LGTB taldeen parte hartzeagatik, bai eta alderdi politikoei oro har agertutako jarrera onagatik; izan ere, kanpainak indarra hartu du eta etorkizunerako lankidetzak aurreikusten dira, esaterako, kanpainari jarraipena ematea inguru gertuagokoetan, alderdiek proposatu duten modura.

Egia da abenduaren 20ko hauteskunde orokorrak izan zirela kanpainaren abiapuntua, baina ez da orduan amaituko. Lan asko egin daiteke politikan emakume lesbianek ikusgaitasuna eskura dezaten, eta horretan jarraituko dugu elkarlanean.



## TALDE POLITIKOEI AURKEZTEKO PROPOSAMENA

**“LESBIANEN ikusgaitasuna  
sustatzeko  
eta haien berdintasuna eta  
diskriminazio eza bermatzeko neurriak  
txertatu agenda politikoan”**

## SARRERA

**Lesbianak: ikusgai eta eskubidedun** ekimenaren helburua zenbait politika abiaraztea da, lesbianen ikusgaitasuna sustatzeko eta haien berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko.

Aurrerago azalduko dugun moduan, emakume lesbianek ikusgaitasun urria dute oraindik ere jendartean, eta horrek zenbait diskriminazio eragiten ditu; hala bada, diskriminazio horien aurka egin nahi dugu ekimen honen bitartez.

Egitasmoa bultzatzen duen erakundeak eta hona ekarri ditugun proposamenak hauspotzen ditugun erakundeok uste dugu talde politikoek badutela modua gizarte-aldaketa eragiteko, baldin eta beren agenda politikoetan beharrezko neurriak txertatzen badituzte lesbianismoaren ikusgaitasun ezari eta diskriminazioari aurre egiteko.

Talde politikoei aurkezteko proposamenak dira hauek, eta **euren konpromisoa lortu** nahi dugu proposamenok beregana ditzaten eta hurrengo legegaldian –2015. urtearen amaieran egitekoak diren hauteskunde orokorren ondorengo lau urteetan– horiek aurrera eramaten lan egin dezaten, hori baita bideetako bat tratu-berdintasunera hurbiltzeko eta lesbianismoaren gutxiegiako ikusgaitasuna gaingiditzeko.

## TESTUINGURUA ETA ARGUDIOAK

### **Gizarteak oro har, eta lesbianek bereziki, aurre egin beharreko errealitatea:**

Topiko bihurtu zaigu, dagoeneko, lesbianen ikusgaitasun eza: lesbiana zer den definitzerakoan beti agertzen den lelo moduko bat. Lesbianen ikusgaitasun eza deritzogun hori egitate bat da, eta axioma modura erabiltzen da, lesbiana bati gerta dakizkikeen egoera guztiak berez azalduko lituzkeen axioma. Alabaina, besterik gabe onartzen den egitate bat baino gehiago ere bada. Lesbianen ikusgaitasun ezak kezkatu egiten gaitu, asko, zeren, jendartean gero eta gehiago onartu arren homosexualitatea, oro har, eta gayen ikusgaitasuna areagotu arren, ez da neurri berean hazten lesbianen presentzia publikoa.

Apenas dago jendaurre zabalean lesbiana dela onartzen duen emakumerik, eta gaur egun gizonezko homosexual ugari eta askotarikoak ezagunak izan arren, ez da horrelakorik gertatzen lesbianekin. Hori horrela, maskulinoa da, batik bat, homosexualitatearen gizarte-irudikapena.

Lesbianen ikusgaitasuna ez da diskrezio kontua, ezta edozein emakumek beste emakume batekin dituen harremanetarako izan nahi duen pribatutasun edo intimitate mailari lotutako kontua ere; hori baino gehiago da: batik bat **onarpen kontua da, zilegitasun**



**sozialarekin lotua, eta nahitaezkoa da eskubideak askatasun osoz baliatzeko baldintzak egotea.**

Gure ustez, ez dagokie lesbianeiei bakarrik euren ikusezintasuna urratzea, jendarte osoari baizik. Jendarte osoaren erantzukizuna da –bere ordezkari politikoen bitartez– eredu sexual heteronormatiboak hausteko konpromisoak hartzea.

**Esparru publikoan da bereziki nabarmena ikusgaitasun lesbikoaren urritasuna.** Askozaz ikusgaiago dira lesbianak arlo pribatuan, publikoan baino; beraz, familia eta lagun artean da zabalagoa eta moldagarriagoa ikusgaitasuna, lan eta enpresa munduan, kalean, auzoan, komunikabideetan eta politikan baino. Gure herrian, jendarteak lesbianismoaz duen irudikapenaren eraikin horrek miniaturaren neurriak ditu, maketa eskalako neurriak .

Ikusgaitasunaren elikagai ditugu, besteak beste, komunikabideak, erreferente historikoak eta esparru publikokoak, sexualitateak jendartean duen onarpena eta botere politikoa, eta elementu horiek guztiak urri dituzte emakumeek.

***Horren ondorio bat: ikusgaitasun urriak zuzenean eragiten dio lesbianek gizarte-baliabideak erabiltzeko moduari.***

EAEko gainontzeko herritarren gisara, lesbianek ere era guztietako gizarte baliabideak erabiltzen dituzte. Hau da, lesbianek ere baliatzen dituzte guztion ongizatea eta bizi kalitatea ziurtatzeko jendarteak prestatutako bitartekoak euren bizi-beharrei erantzun ahal izateko (etxebizitza, laguntza medikoa, hezkuntza, biziraupena), halabeharrak hartara behartzen dituenen: dela zahartzaroa edo mendekotasuna, gaixotasuna, enplegua galtzea, lan istripuren bat...

Hala ere, lesbianek ez dituzte gainontzekoen baldintza beretan erabiltzen gizarte-bitarteko horiek, gehienetan modu ikusezinean –joera sexuala aitatu gabe- baliatzen dituzte eta.

Ikusezintasuna oztopo handia da gizarte baliabideak besteren baldintza beretan baliatzeko orduan, zeren ikusgai bihurtzearen beldurraren ondorio zuzena baita zenbait eskubide baliatzeari uko egitea. Hori horrela, lesbiana askok garesti ordaindu behar izaten dute urte luzetako borrokaren fruitu diren hainbat gizarte eta lege baliabide ez erabiltzea. *“Emakume asko euren eskubideak erabiltzeko ezgai sentitzen dira, ekar dezakeen guztiagatik: etxean esatea, edota lanean; ikusgarri egitea, publiko egitea. Askok nahiago izaten dute euren burua jendaurrean agertu baino, babes eta segurtasun juridiko handiagoari uko egin. Edo, bestela, eskubide bat erabiliz gero, ez dituzte horrek dakartzan abantailak eskatzen. Adibidez, sekretupean ezkondu eta gero, ez dituzte ezkontzeagatik lanean dagozkien egun libreak eskatzen”.* (“Lesbianas con recursos- Lesbianak legez eta bidez” ikerlana).

(<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/LESBIANASCONRECURSOS.pdf><http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/LESBIANAKLEGEZETABIDEZ.pdf>).



Horrelako diskriminazio-egoera nabarmenak aurkitzen ditugu baita zenbait betekizun eskatzen direnean ere. Esate baterako, ezkontza agiria eskatzen denean ume bat lesbiana-bikote baten seme edo alabatza legez onartua izateko, edo erregistro aldaketa egiteko "genero disforia" izatearen diagnosis eskatzen denean. Kasu bietan, gainera, erregistro zibilek ez daukate irizpide bateraturik arauak ezartzerakoan (3/2007 Legea, esaterako). Eta, areago: uste dugu gaur egun ez dela onartzekoa zenbait erregistro zibilek ez jakitea lesbienek beren umeak seme edo alaba modura erregistratzeko ez dutela adopzio espedienterik aurkeztu behar, zortzi urte igaro baitira horretarako bide eman zuen legea onartu zenetik. Gauza bera gertatuko litzateke gurasoak lesbianak ez balira?

Gizarte-baliabideen planteamendu eta jarduteko modu heteronormatiboak lesbien ikusezintasuna sustatzen du, nekez bildu baitaitezke diseinu horretara sexualitate aniztasuna eta generoak bizitzeko modu askotarikoak. Horrela, bada, gizarte baliabideak modu horretan planteatzeak eragindako egoera ugari aita daitezke; besteak beste:

Azterketa ginekologikoa egiterakoan, antisorgailuei buruzko hainbat galdera entzun behar izaten dituzte lesbienek, etsita, edo ez diete zitologia egin nahi, euren sexu orientazioa dela eta. Etengabe heterosexualtzat jotzeak urrundu egiten ditu mediku azterketetatik, eta, sarritan, adinean sartuta baino ez dute jotzen ginekologoarengana, edo ama izatea pentsatzen hasten direnean.

Lesbienek, oro har, ez dituzte baliabide publikoak erabiltzen lagundutako ugalketarako. Hazirik eza, adin irizpide zorrotza, bikotea ez onartzea, izena emateko dokumentazioa eskuratzeko oztopoak, tratu hotza eta beste arrazoi batzuk direla medio, lesbiana gehienek osasun pribatura jotzen dute lagundutako ugalketa prozesua bideratzeko.

Gurutzetako Genero Unitatean, genero rolen kontzepzio murriztu, sexista eta estereotipatuen mende egiten dute emakumeek trantsizio prozesua, eta horrek lotura zuzena du Unitate horren jarduteko modu "triadikoarekin", non erabiltzaileek ezin duten hautazko prozesu terapeutikorik aukeratu hiru faseetako batean (psikiatrikoa, hormonala eta kirurgikoa).

Adineko lesbiana askori ez zaizkio oso erakarri gertatzen adinekoentzako gizarte-baliabideak, ez baitute uste beren beharrezanez egokitzen zaizkienik, eta, gainera, ez dute beren izaera libreki adierazterik zerbitzuok eskaintzen diren inguruetan (IMERSOko bidaiak, Adineko, egoitzak, eguneko zentroak eta adinekoen elkarteak).

### ***Ikusgaitasunik gabe ez dago lesbianismoa bete-betean bizitzerik***

Ikusgai bihurtzea ez ohi da erraza gertatzen; batetik, esangura sozial handia duelako ikusgaitasunak, eta, bestetik, testuinguru sexistetan, aurreiritzirako joera duten inguruetan egiten delako.



Ikusgaitasunik gabe ezinezkoa da lesbianismoa bete-betean bizitzea, eta ezinezkoa, era berean, jendarte askotarikoa osatzea; hori ez da posible izango pertsona batzuek ezkatuta beharra sentitzen baldin badute, sentitzen duten sexualitateak edo bizi duten generoak eragindako beldur, lotsa edo erru sentimenduagatik.

Horregatik, uste dugu alderdi politikoei, lehen mailako eragile diren neurrian, errespetua, zuzentasuna eta integrazioa oinarri dituen jendarte bat eraikitzen lagun dezaketela baldin eta beren agenda politikoetara lesbianekiko konpromisoak biltzen badituzte, benetako berdintasuna lortzeko bidea baita hori.

## PROPOSAMENA

### Honako konpromiso hauek hartzea proposatzen diegu talde politikoei:

- 3/2007 Legea aldarazteko behar diren legezko izapideak abiarazi, izenaren erregistro-aldaketarako eskatzen diren beharkizunak bertatik ezabatzeko (nazionalitateari, adin nagusitasunari, hormona tratamenduan bi urtez jarduteari eta “genero disforia” diagnostikoa izateari dagozkionak), prozesuak ez dezan berarekin ekarri mediku-dokumentazioa nahitaez aurkeztu beharra.
- 14/2006 Legearen aldaketa sustatu, lesbiana-bikoteen adin txikikoak erregistratzeko gaur egun eskatzen diren beharkizunak ezabatzeko. Horrenbestez, honako idazketa hau proposatzen dugu: “askatasun osoz aukeratuko dute emakumezko bikoteek beren harreman afektibo-sexualaren barruan sortutako adin txikikoen filiazioa”. Bestalde, ezkontza-agiria, lagundutako ugalketa teknikak erabili izanaren egiaztatzea eta alde zuzeneko adierazpena aurkeztu beharra ezabatu ez den bitartean, Erregistro eta Notariotzen Zuzendaritza Nagusiari eskatu irizpide bateratua ezar dezaten, Erregistro Zibil guztiek modu berean aplikatu dezaten 7. artikulua.
- 3/2007 Legearen Bigarren Azken Xedapenean jasotzen den “sexua gizonetara ala emakumetara den zalantza jartzen duten izenak” jartzeko debekua ezabatzea.
- Arestian adierazitako 3/2007 Legean ezarritako beharkizunak ezabatzen ez diren bitartean, legea zentzuaren arabera eta logikaz aplikatu dadin eskatu, eskubideak nabarmen urratzen baitira behin eta berriro Erregistro Zibilean egin beharreko izapideetan; beharrezkoa ez delarik ere, mediku forentsearen parte hartzea eskatzen dute, eta proba hori eginaraztea pertsonen intimitateari eraso egitea da.
- Lagundutako ugalketarako legean, 2013an, egindako aldaketak derogatu, murriztu egiten baitute emakume ezkongabeen eta lesbiana-bikoteen aukera lagundutako ugalketarako teknikak erabiltzeko. Hartara, 18 urtetik gorako emakume guztiei bermatuko litzaieke zerbitzu horiek osasun publikoan erabiltzeko aukera, euren egoera zibila edo joera sexuala edozein delarik; beti ere, teknika horiek erabiltzeko onespenezko idatzia, librea eta berariazkoa adierazi ondoren.





- Erreforma horiek indarrean diren artean, Osakidetzari eskatu –osasun publiko eta unibertsa den aldetik- emakume guzti-guztiei berma diezaien lagundutako ugalketarako teknikak erabiltzeko aukera, haien egoera zibila eta joera sexuala kontuan hartu gabe, Jon Darpón Osasun Sailburuak adierazitako moduan (El País, 2013ko uztaialak 18).
- Baliabide publikoak pribatuen ordez sustatu eta ugaritu, lagundutako ugalketa teknikak erabiltzerakoan; neurri hori onuragarria litzateke amatasunaren merkantilizazioa ez ezik baliabide horiek eskuratzerakoan eros-ahalmena daukaten eta ez daukaten emakumeen arteko bereizketa ere bertan behera uzteko.
- Eztabaida sustatu, osasun zerbitzu publikoko Genero Unitateetan gaur egun ezarrita dauden jarduteko irizpideak aldarazteko. Egungo irizpide horien oinarrian transexualen ikuspegi patologitzaile eta heterosexista bat dago, eta, generoa arazo bihurtzen dutenez, “benetako generoa” lortzeko esku-hartzea beste biderik ez da aurreikusten. Aldaketa sustatu beharko litzateke, halaber, arreta protokoloan, erabiltzaileek hautazko terapia-bidea aukera ahal izan dezaten prozesuko hiru faseetako edozeinetan (psikiatrikoa, hormonal eta kirurgikoa).
- Talde politikoen barruan, lesbianismoa jendartean eta publikoki ikusgai izan dadin ahalegindu, eta baldintza egokiak sortu politikan diharduten lesbianak ikusgai izan daitezen.
- Talde politikoek sexu aniztasunari eta genero identitateari buruzko gaiak jorratzen dituztenean, konpromisoa hartuko dute lesbianak izateko irudi publikoa zenbait urtez.
- Bullying lesbofobikoa antzeman eta errotik eraginkortasunez erazteko ikerketa sustatu, bullying homofobikoa aztertzen denean berariaz landu dadin neska nerabe eta gazteenganako bullyinga, zer ezaugarri dauzkan ezagutu eta neskatoei nola eragiten dien jakiteko.

Bilbo, 2015 Iraila

Egitasmoa bultzatzen duen erakundeak : **ALDARTE**

Proposamenak hauspotzen duten erakundeek: **EHGAM, GEHITU, GUZTIOK, HEGOAK, LGTB Liga UPV, MEDEAK, ORTZADAR, SEHASKA, BIZIGAY**

**Babesa:** Emakunde eta Eusko Jaurlaritza



**ALDERDI POLITIKOEN ERANTZUNAK,  
“LESBIANAK:IKUSGAI ETA ESKUBIDEDUN”  
POLITIKAN ERAGITEKO KANPAINAREN  
PROPOSAMENEI**



Kanpainako proposamenak helarazi genizkien alderdi politikoekin bilerak egin ondoren, haiek adierazitakoa jakinarazi nahi dizuegu, garrantzitsua iruditzen baitzaigu jendarteak jakitea zer jarrera eta planteamendu dituzten herritarron ordezkariek.

Beste ezer baino lehen, adierazi behar dugu alderdi guztiek oso jarrera ona eta irekia agertu dutela hasieratik, eta kanpaina aurkeztu genien alderdi guztiekin bildu gara.

## **EH BILDU:**

*“beste alde batetik, adierazi nahi dizuet EH Bilduk onartu egin duela helarazi zeniguten agiria, beraz, baduzue gure atxikimendua”.*

## **PSE-EE:**

*“Lesbianen ikusgaitasuna sustatzeko eta haien berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko neurriak txertatu agenda politikoan” kanpainako sustatzaile zareten aldetik jartzen gara zuekin harremanetan, PSE-EEK kanpaina horrekin bat egiten duela adierazteko.*

*Uste dugu era honetako kanpainak oso garrantzitsuak direla, lesbianen ikusgaitasuna areagotzeko konpromiso argia azaltzen baitute, eta ikusgaitasunaren areagotze hori ezinbesteko baldintza da LGTB kolektiboaren benetako berdintasuna eta normalizazioa lortzeko. (...) Baina badakigu, halaber, lanean jarraitu behar dugula LGTB kolektiboaren benetako berdintasuna ekarriko duen lege bat, Pertsona Transexualen Lege integral bat edo lagundutako ugalketa emakume guztien esku –euren egoera edozein dela ere– egon dadin sustatzeko. Proposamen horiek, beste batzuekin batera, gure hauteskunde-programaren parte izango dira.”*

## **EZKER ANITZA:**

*“Aurrekoan hitz egindakoaren harian, Ezker Anitza-IUk bat egiten dugu “Lesbianak Ikusgai” agiriarekin, behin berriro berretsiz LGTB+ pertsonen –eta, zehatzago, lesbianen– ugalketa- eta giza-eskubideen defentsa.*

*Konpromisoa hartzen dugu gure esku dagoen guztia egiteko agiri horren defentsan, Espainako parlamentuan edo senatuan ordezkaririk lortzen badugu, eta konpromisoa hartzen dugu, halaber, agiri hori gure erakundearen barruan zabaltzeko”.*



## **EAJ:**

*“Aldartek aurkeztu zuen proposamenari dagokionez, Eusko Alderdi Jeltzaleak adierazten du bat datorrela helarazi zitzaigun agiriak jasotzen dituen puntu gehienekin (...). Ezinbestekoa deritzogu lesbianismoaren ikusgaitasun sozial eta publikoaren alde lan egiteari, eta geure egiten dugu lesbianen errealitatea ikusarazteko konpromisoa, sexu-aniztasunarekin eta genero-identitatearekin zerikusia duten gaiak jorratzerakoan.*

*Bat egiten dugu, halaber, bullying lesbofobikoa antzeman eta ezabatzeko ekimen ororekin, indar berezia emanez gazteei zuzenduriko neurriei.*

*Garrantzitsua deritzogu adostasun ahalik eta zabalenak lortzeari, indarrean diren eta lesbianeiei zuzenean eragiten dieten legeak hobetze aldera (Lagundutako ugalketarako legea, erregistroetan izena emateko arautegia...), hau da, lege horiek kontuan har dezaten lesbianen errealitatea, hala saihestu ahal izango baitira berdintasunaren kontrako egoerak; beti ere, kontrajarriak izan daitezkeen eta babes berezia behar duten bestelako interesak ere zainduz”.*

## **AHAL DUGU-PODEMOS:**

(Ahal dugu–Podemoseko ordezkariekin izandako bileraren aktaren laburpena): oso ondo hartu dute kanpaina, eta beharrezkotzat jotzen dute. Dagoeneko, alderdia ari da proposamenetako batzuk lantzen, eta guztiz prest agertu dira kanpaina honetan parte hartzeko eta beste errebindikazio batzuekin bat egiteko, bai eta ordezkaritza politikoa duten bestelako esparruetan (udalak...) hala egiteko.

## **PP:**

Bilera egin genuen alderdi horretako ordezkariekin, baina, haren ondoren, ez digute jakinarazi alderdiak bat egiten ote duen kanpainarekin eta agiriarekin.